




Bide Segurtasunaren Aldeko Euskal Ituna

VISION
ZERO 




AURKIBIDEA

1. ZERGATIK BIDE SEGURTASUNAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA?
2. 2030 ERAKO ERRONKA GLOBALAK
3. EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDA
4. ERAKUNDE ARTEKO TOPAKETAK ETA GIZARTE-TOPAKETAK
5. AKORDIOAK
6. GOBERNANTZA-EREDUA

1

**ZERGATIK BIDE
SEGURTASUNA-
REN ALDEKO
EUSKAL ITUNA?**



Euskadiko 2021-2025erako Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasanga- rriko Plan Estrategi- koa

egiteko prozesuaren esparruan, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Euskadiko 2020-2025erako Segurtasun Publikoko Planak ezarritako jarraibideekin bat etorrituz, zenbait proiektu eragile eta estrategiko identifikatu ziren.

Planean jasotako erronka estrategikoei aurre egiteko jarduketan eragin handia duten proiektuak dira.

Proiektu eragile horietako bat **Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituna da, Euskadin sinatu dena. Planaren xede nagusiari erantzuna emateko helburua du itunak.** Hau da xede hori: istripu-tasa murriztea, trafiko-istripuek eragindako Zero Biktimaren Ikuspegian oinarrituz, Euskadi bide-segurtasunaren eta trafikoaren kudeaketaren arloan erreferente bihurtzeko, betiere hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua txikitzeko helburu orokorrak betez.

Ituna sinatuta, Euskadik erantzun egokia eman die Stockholmeko Adierazpenean jasotako 18 konpromisoetako hainbati. Adierazpen hori Bide Segurtasunari buruzko Munduko Hirugarren Ministro Konferentzian sinatu zen. Munduko helburuak 2030erako lortzea du xede, eta Stockholmen sinatu zen, 2020ko otsailean. Halaber, horrelako itun bat sinatzeak indartu egiten du Euskadin *Zero Ikuspegia* Estrategia sistema seguruaren ikuspegitik lortzeko apustua. Jarrera etiko horren arabera, ezin da onartu giza akatsek heriotza berekin ekartzea. Beraz, paradigma-aldaketa bat bultzatu nahi da, bide-erabiltzailea ez izateko pertsona bat hiltzea edo larriki zauritzea eragiten duen zirkulazio-istripu baten erantzule bakarra; izan ere, azpiegituren titularrak, ibilgailuen fabrikatzaileak, legegileak, garraio-operadoreak, trafikoko poliziak eta Administrazioa ere erantzuletzat hartu behar dira. Azken batean, bide-segurtasunaren arloan eragina duen eta esku hartzen duen sistema osoa hartu behar da erantzuletzat.



2

2030 ERAKO ERRONKA GLOBALAK



Argi eta garbi dago azken urteotan bide-segurtasuna dela agenda politikoak jorratu beharreko funtsezko gaietako bat. Osasunaren Mundu Erakundearen (OMEren) arabera, milioi bat hirurehun eta berrogeita hamar mila pertsona hiltzen dira urtero munduan gertatzen diren zirkulazio-istripuen ondorioz (3.700 pertsona egunean). Izan ere, 5 eta 29 urte bitarteko haurren eta gazteen heriotza-kausa nagusia dira trafiko-istripuak.

Proiekzioen arabera, zirkulazio-istripuek 500 milioi heriotza eta lesio eragingo dituzte 2020tik 2030era bitartean; hau da, prebenitzeko moduko epidemia eta krisi bat dira trafiko-istripuak. Hori dela eta, NBEk onartutako Garapen Jasangarriari buruzko 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuen (GJHen) artean, bide-segurtasunarekin eta mugikortasun seguru eta jasangarriarekin lotutako zenbait helburu jaso dira:

3. helburua: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongi-zatea sustatzea

- **3.6. xedea:** Hemendik 2020ra, erdira murriztea munduan zirkulazio-istripuen ondorioz eragindako heriotza- eta lesio-kopurua.

11. helburua: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea

- **11.2. xedea:** Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen —emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak— beharrei arreta berezia eskainiz.



**Hortaz, Garapen
Jasangarrirako 2030 Agendan
bide-segurtasunaren arloko
helburu espezifikoak sartzeak
erantzukizun orokorra dakar,
bai gobernuentzat, bai
esparru pribatuarentzat.
Gainera, funtsezko eragilea
izango da beste
jasangarritasun-helburu asko
garatzeko.**

Horren guztiaren helburua da epe luzera
ahalik eta gehien lortzea bide-segurtasuna-
ren ikuspegi integratua: Sistema Seguruaren
ikuspegia eta Zero Ikuspegia;

**hau da, 2050erako, errepideetan zero
pertsona hiltzea. Helburu hori zirkula-
zio-istripuen ondorioz zauri larriak dituz-
ten pertsonen kopuruari ere aplikatzen
zaio.**





3

**EUSKADI
BASQUE
COUNTRY
2030 AGENDA**



2030 Agenda mundu-mailan proposatzen da eta, Nazio Batuen arabera, lurralde bakoitzak bere egoera kontuan hartuta egin behar du bide hori.

Euskadi bat dator helburu eta lehentasun globalekin, eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda bultzatzen du Euskadi Basque Country 2030 Agendaren bidez, gobernu-programa eta hura garatzen duten politika sektorialak 17 GJHei lotutako helburu eta xedeekin lerrokatuz.

Testuinguru horretan, Euskadi Basque Country 2030 Agendak, bere plangintza-tresnetan, Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoa eta Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Nagusia jasotzen ditu. Plan horren diseinuan eta definizioan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako (eta Euskadi 2030 Agendan jasotako) Garapen Jasangarrirako Helburuak hartu dira kontuan.

Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Nagusiak Euskadiko segurtasunari bereziki eragin diezaioketen 17 arrisku eta mehatxu identifikatzen ditu datozen urteetarako. Arrisku eta mehatxu horietako batzuk zirkulazio-istripuak dira.

Ilido horretan, I. erronkan (Segurtasun integralaren eredua), 4.6. ekimena (Bide kontzientziarazioko eta hezkuntzako programa eta plan espezifikoak definitzea, talde zaurgarrietan trafiko-istripuak prebenitzeko) aurreikusten du, eta 4.6.1. ekintzan, Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko 2021-2025 Plan Estrategikoa egitea jasotzen du. Zero Ikuspegia estrategia bat da, eta helburu hau du: 2030erako % 50 txikitzea 2020an hildako eta larriki zauritutako pertsonen kopurua, eta, 2050era begira, zero biktima izatea.



4

**ERAKUNDE
ARTEKO
TOPAKETAK ETA
GIZARTE-TOPA-
KETAK**



Itun hau egiteko prozesuan, 29 eragilek hartu dute parte, publikoek zein pribatuek. Hitzarmenaren orientazioak eta eduki orokorrak kontrastatu dira haiekin.

Bestalde, bakoitzak Itunaren esparruan bere gain hartuko dituen banakako konpromisoak zehaztu dira. Datozen urteetan, konpromiso horien jarraipena egingo da, gobernantza-eredu egituratu baten bidez. Hauek dira atxikitako erakundeak:

- Lehendakaritza
- Eusko Jaurlaritzako sailak
- Foru-aldundiak
- Euskadiko hiru hiriburuak
- EUDEL
- EITB
- Euskadiko Bide Segurtasuneko Fiskaltza
- Zirkulazio-istripuen biktimen elkarteak
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Euskofederpen
- Euskadiko Txirrindularitza Federazioa





5

AKORDIOAK


GUK, AGINTARIOK, ERABAKITZEKO AHALMENA EDO ORDEZKARITZA-MANDATUA DUGUNOK, ETA EUSKADIKO BIDE-SEGURTASUNAREN ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA JASANGARRIAREN ARLOAN ERANTZUKIZUNA DUGUNOK,

1. Badakigu 2000. urtean 200 pertsona baino gehiago hil zirela Euskadin zirkulazio-istripuen ondorioz, eta 2022an 45 pertsona ingurukoa dela kopuru hori.
2. Onartzen dugu Euskadin ezbehar-tasaren beheranzko joera finkatzen ari dela eta datuak egonkortu egin direla azken urteotan.
3. Gure ustez, Euskadin zirkulazio-istripuetan izandako biktimen kopurua onartezina da, eta berretsi egiten dugu lankidetzaren areagotzea komeni dela, 2050erako zero biktimaren helburua lortzeko estrategiak diseinatzeko.
4. Geure egiten ditugu Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuetan bide-segurtasunari eta jasangarritasunari buruz jasotako erronka globalak. Helburu horiek 3.6. eta 11.2. xedeen bidez zehaztu dira, eta 2020ko otsailean berretsi ziren Stockholmeko Adierazpenean.
5. Ulertzen dugu saihestu egin daitezkeela trafiko-istripuek eragindako heriotzak eta lesioak, osasun publikoko arazo bat direla, eta ondorio pertsonal, sozial eta ekonomikoak dituztela, bereziki talde zaugarrietan (oinezkoengan, bizikleta-, ziklomotor- edo motozikleta-gidariengan, eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak erabiltzen dituzten eta dibertsitate funtzionala duten pertsonengan).
6. Onartu egiten dugu denok —erakundeak, kaleen eta errepideen erabiltzaileak, eta bide-segurtasunarekin konpromisoa hartu duten eragileak— erantzukizuna dugula, zirkulazio-istripuek eragindako heriotzarik eta lesio larririk gabeko gizartea lortzen laguntzeko.

BERRETSI EGITEN DUGU EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDAN JASOTAKO GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURU OROKORREKIN DUGUN KONPROMISO SENDOA, ETA ERABAKI DUGU:

1. Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda inplementatzea eta bide-segurtasuna eta mugikortasun seguru eta jasangarria bermatzeko aliantza estrategikoak ezartzea, gizartearen hazkunde eta ongizaterako euskal ereduaren esparruan.
2. Erakundeen arteko lankidetzeta eta lankidetzeta publiko-pribatua indartzea, 2030erako gure kale eta errepideetan hildakoen eta larriki zauritutakoen kopurua erdira murrizteko.
3. Zirkulazio-istripuen ondoriozko Zero Biktimaren Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea, 2050era begira, Euskadi bide-segurtasunaren eta mugikortasun seguru eta jasangarriaren arloan Europako erreferente izan dadin.
4. Bide-segurtasunaren, osasunaren, berrikuntzaren, hezkuntzaren, justizia, ekitatearen, berdintasunaren, udalerrri eta hiri jasangarrien, errepide seguruaren eta klima-aldaketa arteko interdependentziari heltzea, pertsonak politika guztien erdigunean jarrita.
5. Mugikortasun aktiboa indartzea —bizikletaren edo beste garraiobide osangarri batzuen erabilera—, eta garraio-sistema seguruak, merkeak, irisgarriak eta jasangarriak bultzatzea, garraio publikoa eta garraio-txartelen elkarrera-gingarritasuna sustatuz.
6. Hiri-eredu berrien alde egitea, pertsonen joan-etorriak eta salgaien garraioa osasunerako, segurtasunerako, ingurumenerako eta tokiko ekonomiaren garapenerako kaltegarriak izan ez daitezen.
7. Sarean ezbehar-tasa handiko eremuak ezabatzeko eta hobekuntza-potentzial handiko eremuak hobetzeko estrategiak planifikatu eta koordinatzea, jarduketazuzentzaile eta prebentiboen bidez.
8. Euskadiko bide-sarea osatzen duten errepideen kudeaketa integral, adimentsu, dinamiko, seguru eta jasangarriaren alde egitea.
9. Euskadiko bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde egitea, bide-segurtasuna etengabe hobetzeko.

10. Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea, adimenean oinarritutako bide-segurtasuneko ereduak sustatzeko, eta mugikortasunaren eta errepideen kudeaketa-prozesuak optimizatzeko.
11. Kolektibo zaugarriak bereziki babestuko dituzten politikak bultzatzea; hots, bizikleta erabiltzen dutenak, motor-gidariak, oinezkoak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, adinekoak eta haurrak.
12. Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea, zirkulazio-istripuak prebenitzeko eta bizikidetzan eta errespétuan oinarritutako jokabide arduratsuak bultzatzeko.
13. Trafikoaren arloan indarrean dauden arauak ez betetzeak dakartzan arriskuei eta ondorio legalei buruzko informazioa ematea bide-erabiltzaileei, eta arrisku-portaerak dituzten gidarien errehabilitazio eraginkorra bultzatzea.
14. Euskadiko enpresei eta erakundeei eskatzea laneko bide-segurtasuna sar dezatela enpresen eta langile autonomoen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan.
15. Istripuaren ondoren erantzun eraginkorra ziurtatzea: laguntza psikologikoa, soziala eta legala biktimentzat eta haien senideentzat.
16. Itun honetako akordioak ezagutzera ematea, eta herritarrei mezu hau helaraztea: bide-segurtasuna gizarte osoaren erantzukizuna da.
17. Gobernantza-prozesu eraginkor bat abiaraztea, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituneko konpromisoen ezarpen-egoera ebaluatzeko eta ezarritako helburuak lortzeko bidean zenbat aurreratu den neurtzeko.

A group of people are walking away from the camera across a zebra crossing in a city. On the left, a man in a light blue t-shirt and dark shorts walks a small white dog. Next to him is a woman in a white dress. To their right is another woman in a dark dress. Further right, a man in a pink polo shirt and blue jeans walks, and on the far right, a man in a white polo shirt and blue shorts walks. A large white number '6' is overlaid on the left side of the image. The background shows city buildings and trees.

6

**GOVERNANTZA-
EREDUA**

Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunak governantza-eredu bat du, atxikitako eragileek hartutako konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

Itunaren indarraldia 2025ean amaituko da, BSPEaren indarraldia amaitzen den urte berean (2021-2025).



Jarraipen-batzorde bat eratuko da Itunaren aurrerapen-mailari buruzko txostenak urtero prestatuko ditu batzorde horrek, alderdi guztiak zer egoeratan dauden jakiteko. Txostenek aukera emango dute aldaketa esanguratsurik gertatu den zehazteko, aurreikusitako egoerarekin alderatuta, eta, hala bada, horren arabera jardun ahal izateko. Txostenak Lehendakaritzara —Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia— igorriko dira, Euskadi 2030 Agendaren esparruan balora daitezen.

Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituna tresna bizitzat hartzen da. Hori dela eta, Itunaren governantza-ereduak eragile gehiago atxikitzea proposatzen du.

**Horretarako, 2023an,
eragileen mapa berri bat
egingo da, eta haiekin
kontraste-bilerak egingo
dira, atxikiko ote diren
jakiteko.**

